

## NEW DELI

New Deli edozein tokitan irakurtzen zuenean bihotza uzkurtu egiten zitzaion Laurari. Hitz horrek sorrarazten zion sentsazioa azal ezina zen. Gaixotasun luze baten ondorioz hil zitzaion senarra ekartzen zion gogora.

Supermerkatuan zegoen asteko erosketa egiten, eta stand batean New Deli hitza irakur zezakeen. Marka jakin bateko produktu bat erosterakoan, ordu laurden barru burutuko zen New Delirako bidaia baten zozketan sartzen zinen. Laurak ez zuen inoiz gauza horietan sinetsi. Gainera diruz oso justu zebilen senarra hil zenetik. Dena den, senaren ezusteko agerraldi horietako batean, parte hartzea erabaki zuen. Senarraren azken nahia betetzeko aukera bakartzat ikusten zuen lehiaketa.

Laurak hogeitaz zenbakian jarri zuen bere izena, erosketak egiteko aurrekontuaren zati handi bat lehiaketan sartzeko eskubidea ematen zizun produktu batean gastatu ondoren. Hogeitaz zenbakia berezia zen arrazoi batengatik: abuztuaren hogeitan hil zen Tom.

Ezagutezin zegoen Laura. Ez zen sekula hain baikor eta bere aukerez hain seguru egon. Bidaia berarentzat izango zela sinetsirik zuen. Bizitza nahiko bidegabea izan zen ordura arte berarekin, eta horregatik uste zuen momentu on bat bizitzeko unea heldu zitzaioela.

Ehun zenbaki sartu ziren zozketa zorroan, beraz, irabazle irteteko aukerak mugatuak ziren. Trajedun gizon batek eskua zorroan sartu zuenean isiltasuna zen nagusi supermerkatuan. Hozkailuen zarata apala soilik entzun zitekeen. Paper bat atera zuen zorrotik eta Laurak begiak itxi zituen indarrez, atzamarrak ipurdiaren kontra gurutzatuta zituelarik. Bere zenbakia atera zen, hogeia. Pozez zorutzen igo zen eszenatokira saria hartzera. Helbururik gabeko bizitza guztiz aldatu zen bat-batean. Senarrarekin kontu bat zeukan betetzeke.

Hegaldia hiru egun barru aterako zela jakinarazi zioten supermerkatuko gela batean egindako batzartxoan. Egun horiek bukaezinak egin zitzaizkion Laurari. Ez zuen entretenitzeko ezer egin, ezta kalera atera ere. Sinesgaitza egiten bazitzaion ere, etxe hartan egongo zen azken gaua iritsi zen.

Arratsaldeko bostetarako zegoen iragarrita hegaldia. Hala ere, goiz esnatu zen egun hartan Laura, inoiz baino goizago. Eguzki izpiak nekez ikus zitezkeen lainoen artetik eta lur umelaren usaina gela barrura iritsi zen erdi zabalik zegoen leihotik. Ez zuen ia lorik egin baina ez zen nekatuta sentitzen. Etxean ibiltzeko mantala jantzi, eta begirada jaitsi gabe etxeko zapatilak hanketan jarri zituen. Baso bat esne berotzen jarri zuen sukaldean eta bitartean komunera joan zen aurpegia bustitzera eta txiza egitera. Dena instintiboki egiten ari zela konturatu zen, burua beste leku batean zeukan. Hil aurreko momentuaren antza hartzen zion. Esaten dutenez, hiltzear zauden unean, bizitza osoa pasatzen zaizu begien aurretik. Gauza bera gertatzen ari zitzaion Laurari. Bizitza osoa ez, baina bai parte garrantzitsu bat. Egun berezia zela ukalezina zen.

Bi tragotan bukatu zuen esnea, eta mendira joateko arropa aproposena jantzi zuen. Goizeko

7:30 ziren jada eta zirudienez lainoek amore eman zuten eguzkiaren kontrako gerran. Badaezpada euritakoa sartu zuen zorroan.

Herriko kaleetan nekez ikus zitekeen inor. Autoren bat edo beste gurutzatu zituen mendira bidean, ziur aski lanera bidean, edo larunbat goizetako familia plana burutzera, nork daki. Kontua da, hori guztia pentsatzen zebilela iritsi zela basora, eta malda areagotzen ari zela konturatu zen Laura. Tontorrak apenas zituen berrehun metro, baina lehen aldatsak gogor xamarrek ziren.

Tomek astean hiru edo lau alditan igotzen zuen. Negu partean, otsailean batez ere, maizago joaten zen. Bere ustez, hilabete horretan tontorrean arnasten zen aireak ez zeukan parekorik. Gainera, elurra gogoko zuen, baita elurrak uzten zituen paraje harrigarriak argazki kamera batez harrapatzea ere.

Malkoren batek ihes egin zuen Lauraren begietatik. Batez ere, tontor horrekin lotzen zituen bere senar ohiaren oroitzapenak. Damu zen, goizetan ordubete gehiago lo egiteagatik, senarrarekin galdu zituen mendi txangoak. Mendira joan behar zuenean, Tomek beti galdetzen zion, belarrira xuxurlatuz, ea berarekin joango ote zen gaurkoan. Baten soilik izan ziren elkarrekin tontor hartan, Tom hil zeneko egunean. Hamaika hilabete igaro dira hil zela toki hartan. Bere bizitzako azken asteak gogorrak izan ziren eta, gaixotasuna txarrerantz joan zitzaion. Mina arintzeko modu bakarra tontorreko airea arnastea zela esan zion Laurari, eta mesedez hara eramateko, azken uneak berarekin eta leku hartan igaro nahi zituela. Arratsalde osoa igaro zuten gaztainondo baten azpian, abuztuko bero jasanezinaz gerizpean babesteko. Azken asteetan ikusi ez zion aurpegia zeukan. Ezin zuen ia hitzik ahoskatu, baina pozik zen. Gauza bera errepikatzen ahalegindu zen hainbat alditan, baina ulergaitza egiten zitzaion Laurari. Azkenean zer zihoen asmatzea lortu zuen: “Errautsak New Delin”. Indiako hiriburua oso berezia zen berarentzat. Bertan lau urtez egon zen ikasten, eta lagun eta esperientzia ugari utzi zituen.

Tontorrera heltzear zegoela, korrikan zihoan bikote batek Laura aurreratu zuen. Bide guztian ikusten zituen lehenengo pertsonak ziren, edo hala uste zuen. Izan ere, ezin zuen aurreko ordu laurdenean gertatutakoa gogoratu. Mendi puntan bikote kirolaria luzaketa ariketak egiten ari zela ikus zezakeen Laurak, senarraren heriotzaren lekuko izan zen gaztainondotik metro batzuetara. Ez zekien zer egin. Bikotea joan arte belar gainean eserita itxaron edo arbolara abiatu. Segundo batzuen bueltan gaztainondora hurbiltzea erabaki zuen. Bikotearen luzaketa ariketek, printzipioz, ez zeukaten denbora askoz gehiagorik iraun behar, eta berehala jaitsiko zirela pentsatu zuen. Tomena zen labana bat atera eta gaztainondoaren enborra zulatzen hasi zen, zerbait idaztera joango balitz bezala. Bien bitartean, pare bat metrora zegoen bikotea ozen ari zen hizketan eta bat-batean Laura agurtu zuten. Laurak ez zuen begirada labanatik eta enborretik kendu. Hitz bat bera ere ez zitzaion ahotik atera. Kontzentratuta zegoen idazten zebilena argi eta garbi uler zedin. Minutu batzuk iraun zituen. “Ez zaitut inoiz ahaztuko, betiko nire bihotzean” zizelkatuta zegoen jada gaztainondoaren enborrean.

Ordubete edo igaro zen etxetik atera zenetik. Eguzkia indarrez berotzen hasi zen eta etxera itzultzeko momentua zela pentsatu zuen. Denbora batez zuhaitz azpian esertzeko ideia pasatu zitzaion burutik, baina etxera itzultzea erabaki zuen.

Urduritasuna areagotzen zihoan orduak aurrera egiten zuten heinean, eta hegazkina hartzeko unea iristear zegoela. Bazkal orduan irten behar zuen aireporturantz. Ez zeukan diru nahikorik taxi bat ordaintzeko eta, beraz, garraio publikoa erabili behar zuen. Maleta txiki bat atera zuen armairutik. Urteetan pilatutako hautsak eztula eragin zion Laurari, baina berehala leiho batean astindu zuen eta hautsa desagertu egin zen. Senarraren errausak gordeta zeuden kutxatxoak hartu zuen esku batez, besteaz maleta irekitzen zebilen bitartean. Kutxatxoari musu gozo bat eman zion, eta maleta barnean gorde zuen.

Mendira eramandako arropa aldatzea erabaki zuen. Izerdi arrastoak nabarmenak ziren, batez ere, kamisetan. Batetik, ariketa fisikoarengatik; eta bestetik, erraietaraino sartzen zen bero itogarriarengatik. Dutxa hotz bat hartu eta zeukan arroparik dotoreena jantzi zuen. Etxe zaharkituari nostalgiaz betetako azken begirada zuzendu zion, eta maleta eskuan zuela, atea kolpez itxi zuen.

Bi autobus hartu behar zituela bazekien, nahiz eta ez zen inoiz aireportuan egon. Lehenik hirira hurbiltzen zuen autobusa, ordu erdiro etxe azpiko geltokitik pasatzen zena. Bigarrenik, hiriko autobus geltokian aireporturako autobusak irten ohi zirela entzunda zeukan. Bakarrik zegoen geltokian, eta baita hurbileko kaleetan ere. Ordu horietan etxean egoteko aholkatu zuten azken egunetan irratian. Asfaltoak kea ateratzen zuen, baina Laurak ez zeukan bero itogarri horren sentsaziorik oraingoan. Burua beste zerbaitetan zuen.

Autobusa iritsi zen geltokira. Gidaria izerditan blai zegoen, eta lehendabiziko begirada batean, ez zegoen inor gehiago. Ordaintzera zihoan unean, berriz, ahots batzuk entzun zituen, atzeko partetik zetozenak. Bi neska gazte zeuden, bakoitza maleta batekin. Gidariari aireporturako autobusak galdetu zioten, eta hiriko geltoki nagusitik ordu bateko maiztasunaz ateratzen zirela erantzun zion.

Neska gazteak ere hiriko geltoki nagusian jaitsi ziren Laurarekin batera. Bazekien ordu bateko maiztasunaz ateratzen zirela aireporturako autobusak, baina ez zekien ze ordutan. Neska gazteak autobus hori hartuko zutelakoan, hurbiletik jarraitu zituen. Komunera joateko gogoia zuen, baina ezin zuen neska bien arrastoa galdu. Geltoki bukaezin hartan eta jendez osatutako labirintotik, lortu zuten behingoz autobusa aurkitzea. Ilara luze bat zegoen autobusaren atetik iragarkiez osatutako panel bateraino. Azkenaren atzean jarri zen Laura, neska gazteengandik hiru pertsonara. Paneleko erloju digitalak 14:26 markatzen zuen, eta autobusaren atea ireki egin ziren. Bere aurrean zegoen umeak aitari galdetu zion ea ze ordutan iritsiko ziren aireportura. Laurak belarria zorroztu zuen aitaren erantzunaren zain, baina gizonak “laster, egon zaitez lasai” soilik erantzun zion. Hegazkina galtzearen beldur zen, nahiz eta bi ordu eta erdi geratu oraindik.

Beldurra galtzen hasi zen bidaia hasi, eta hogeitun minuturen bueltan aireportuko eraikina eta lurra hartzen ari zen hegazkin bat ikusi zuenean. Autobusa sarrera nagusiaren aurrean geratu zen. Azkena atera zen Laura, maleta bi eskuen artean helduta zuelarik.

Sartu eta berehala, hegaldien datuekin betetako pantailak nonahi ikus zitezkeen. Bidaia irabazi zuen egunean azaldu zioten bezala, konpainiako salmahaira hurbildu zen eta bertan eserita zegoen neska gazte eta lirain bati lehiaketan lortutako billetea erakutsi zion.

Ordenagailuak ordea, ez zion txartela irakurtzen eta Laura urduri jarri zen. Neska eserlekutik altxatu zen, eta laguntza eske joan zen. Jarraian tipo batekin agertu zen. Tipoak ere ezingo zuela lortu zirudien. Lauraren burutik era guztietako pentsamenduak igarotzen hasi ziren. Lehiaketa hori iruzur bat besterik ez zela izan eta engainatu egin zutela. Hala ere, une horretan neskatoaren ahots liraina entzun zuen lehenengoz. Barkatzeko, baina kostatu egin zaiola ordenagailuari billetea irakurtzea.

Maleta uhal garraiatzailean jarri zuen. Neskatoak zinta bat itsatsi zuen maletan eta uhala martxan jarri zen. Maletaren ibilbidea begiradarekin jarraitu zuen, zinta beltz batzuen atzetik sartu zen arte. Katuek zazpi bizitza dituztenaren kondaira etorri zitzaion burura, gorputzeko atal bat bera ere mugitzen ez zuela. Pertsonak ere bizitza bat baino gehiago bizi ditzakete bizitza bakarraren barruan, eta Laurak bere lehenengo bizitzaren azken uneak arretaz jarraitu zituen, maleta hori zinta beltz batzuek irentsi zituen momentura arte. Bigarren bizitza New Delin zain zegoen, zerotik hasteko prest.